Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko apirilaren 13a, osteguna — 70 — Jueves, a 13 de abril de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko martxoaren 28an honako erabaki hauek hartu zituen:

«Tokiko Gobernu Batzordeak, 2022ko abenduaren 20an, Donostiako Udalaren A1 azpitaldeko plazak lehiaketa bidez betetzeko egonkortzeko salbuespenezko prozesuko deialdia eta oinarriak onartu zituen.

Oinarriak 2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 247. zenbakian.

Goi Mailako Teknikaria (komunikazio espezialitatea) plazari eragiten dion akats bat antzeman da deialdiaren oinarrietan. Zuzenketak ez du eraginik deialdiko gainerako plazetan.

VIII. eranskinean, B.4 azpiatalean, honako hau ezartzen da:

«B.4) Hizkuntzak. Frantsesa eta Alemana.

Azpiatal honetan, ingelesa, frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik 10 puntu emango dira gehienez».

Ikus daitekeenez, azpiatalaren enuntziatuaren eta haren testuaren artean inkoherentzia bat dago, ingelesa ez baita enuntziatuan agertzen, baina bai ondorengo testuan.

Kontuan hartuta Udalaren irizpide orokorra izan dela hizkuntza bat ez baloratzea haren ezagutza sartzeko baldintza denean, argi dago akatsa gertatu dela ingelesa B.4 azpiataleko testuan sartzean, plaza eskuratzeko irizpide espezifikoen artean ingeleseko B2 maila egiaztatzea baitago.

Horiek horrela, hauek dira Tokiko Gobernu Batzordeari proposatutako.

AKORDIOAK

*Lehena.* Goi Mailako Teknikaria (komunikazio espezialitatea) plaza hautatzeko prozesuaren oinarrien VIII. eranskineko B.4 atalean antzemandako akatsaren zuzenketa onartzea eta, ondorioz:

— *Honako hau dion lekuan:*

«B.4) Hizkuntzak. Frantsesa eta Alemana.

Azpiatal honetan, ingelesa, frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik 10 puntu emango dira gehienez».

— *Honako hau jaso behar du:*

«B.4) Hizkuntzak. Frantsesa eta Alemana.

Azpiatal honetan frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik 10 puntu emango dira gehienez».

*Bigarrena.* Donostiako Udalaren A1 azpitaldeko plazak lehiaketa bidez betetzeko egonkortze salbuespenezko prozesuaren oinarrien zuzenketa argitaratzea».

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, con fecha 28 de marzo de 2023, ha adoptado los siguientes acuerdos:

«La Junta de Gobierno Local, con fecha 20 de diciembre de 2022, aprobó la convocatoria y las bases del proceso excepcional de estabilización para la provisión mediante el sistema de concurso de plazas del Subgrupo A1 del Ayuntamiento de San Sebastián.

Las bases fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 247, de fecha 30 de diciembre de 2022.

Se ha advertido un error en las bases de la convocatoria que afecta al proceso selectivo para acceder a la plaza Técnico/a Superior (especialidad comunicación). La corrección no afecta al resto de las plazas de la convocatoria.

En el anexo VIII en el subapartado B.4 se establece lo siguiente:

«B.4) Idiomas. Francés y Alemán.

En este subapartado se valorará, hasta un máximo de 10 puntos, el conocimiento de inglés, francés y/o alemán».

Se puede observar que entre el enunciado del subapartado y el texto del mismo hay una incoherencia, al no figurar el inglés en el enunciado pero sí en el texto posterior.

Teniendo en cuenta que ha sido criterio general del Ayuntamiento no valorar un idioma cuando su conocimiento es requisito de acceso, resulta evidente que el error se ha producido al incorporar el inglés al texto del subapartado B.4, dado que entre los criterios específicos para acceder a la plaza se encuentra la acreditación del nivel B2 de inglés.

Visto cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes

ACUERDOS

*Primero.* Aprobar la corrección del error detectado en el apartado B.4 del anexo VIII de las bases del proceso selectivo de la plaza Técnico/a Superior (especialidad comunicación) y, en consecuencia:

— *Donde dice:*

«B.4) Idiomas. Francés y Alemán.

En este subapartado se valorará, hasta un máximo de 10 puntos, el conocimiento de inglés, francés y/o alemán».

— *Debe decir:*

«B.4) Idiomas. Francés y Alemán.

En este subapartado se valorará, hasta un máximo de 10 puntos, el conocimiento de francés y/o alemán».

*Segundo.* Publicar la corrección de las bases del proceso excepcional de estabilización para la provisión mediante concurso de plazas del Subgrupo A1 del Ayuntamiento de San Sebastián».

EK\CV GAO-I-2023-02366

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko martxoaren 29a.—Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria. (2366)

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 29 de marzo de 2023.—La directora de Gestión de Personas. (2366)

EK\CV GAO-I-2023-02366